BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4710

EBAZPENA, 2012ko urriaren 11koa, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio saileko Zerbitzu eta Araubide Juridikoko zuzendariarena, zeinaren bitartez, batetik, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 6 zenbakiko Epaitegira honako espediente hau bidaltzeko xedatzen baita: PCA-235-2012-VI zk.ko administrazio-espedientea, 159/2012-E prozedura laburtuari buruzko administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokiona; eta, bestetik, epatu egiten baitira interesdun izan daitekeenak, aipatu epaitegian agertu ahal daitezen.

Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 6 zenbakiko Epaitegiak honako espediente bidal dakion eskatu du: Herrizaingo Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2012-05-20ko, 2012-05-25eko eta 2012-05-22ko Ebazpenen aurka, 159/2012-E zk.ko prozedura laburtuan bideratu administrazioarekiko auzi-errekurtsoari buruzko PCA-235-2012-VI zk.ko administrazio-espedientea (ebazpen horien bitartez, ezetsi egin ziren honakoak: Intendente kategoriari doazkion zerbitzu-eginkizunak erreklamatzeko, Ertzaintzako zenbait funtzionarioek aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoak).

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, hau

EBAZTEN DUT:

1.– Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 6 zenbakiko Epaitegiak eskatutako administrazio espedientea bidaltzea.

2.– Prozedura honetan interesdunei epea jartzea, egoki baderitzote, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 6 zenbakiko Epaitegian ager daitezen, euren interesen alde egin dezaten. Epe hori, hain zuzen ere, 9 egunekoa izango da, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– jakinaraz bekie interesdunei.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 11.

Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendaria,
IÑAKI CALONGE CRESPO.